



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-20.04.05

2020ko martxoaren 16ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2020ko martxoaren 16an, arratsaldeko 14:15etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde zurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik herena bertaratu denez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...
O-20/04-01



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-20.04.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA: **AURREKO OSOKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak udalkideen esku jarri ditu aurretik posta elektronikoz bidalitako aktak. Eztabaida ireki da eta ez da oharrik edo aldaketa eskaririk egin. Bozkatzeari ekin zaio eta aho batez onartu dira 2019.11.18, 2019.12.18, 2020.01.29, 2020.02.05 eta 2020.03.11ko Osoko Bilkuren aktak, denak bilera ezohikoenak, azaroaren 18koarena izan ezean.

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkatetzaren R-19/373 Ebazpenetik R-20/153 Ebazpenera doan zerrenda jarri da zinegotzien esku eta Idazkariak galdetu du ebazpen horien inguruko azalpenik eskatu ote nahi duen inork.

Ez da galderarik izan eta hurrengo puntua aztertzeari ekin zaio.

HIRUGARREN PUNTUA: **01/2020 KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak azaldu du aurretik Ogasun Batzordean landutako gaia jasotzen duela 1. Kreditu Aldaketak, alegia, Muxika Egurastokia urbanizatzeko eta HAPOaren 1. Aldaketaren idazketa ordaintzeko 2019ko Aurrekontuan jasota zegoen partidatik aurten ordaindu beharra sortu dela, atzerapenak medio, eta, ondorioz, Kreditu Txertaketa egitea proposatzen dela 2020ko Udal Aurrekontuan sartzeko.

Ez da galderarik edo bestelako ekarpenik izan eta bozketari ekin zaio.

Aldeko botoak izan dira guztiak. Hortaz, ahobatez onartuta geratu da behin-behinean.

LAUGARREN PUNTUA: **02/2020 KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak azaldu du aurretik Ogasun Batzordean landutako gaia jasotzen duela 2. Kreditu Aldaketak ere, alegia, Artxiboa eguneratzeko eta txukuntzeko lanak ez direla

...//...

O-20/04-02



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-20.04.07

...//...

ihazko kontratuarekin bukatu, eta horregatik sortu dela aurtengo aurrekontuan horretarako partida bat sortzeko beharra.

Horrez gain, ihaz datuen babeserako Erregelamendua indarrean sartu izanak obligazio batzuk ezartzen dizkiola Udalari eta horiek betetzeko eta Udalak erabiltzen dituen Datu Pertsonalak behar bezala kudeatzeko aholkularitza zerbitzua kontratatzeko beharra sortu dela.

Aurtengo aurrekontuaren diru partidetan gastu horiek aurreikusi ez direnez, kreditu gehigarrien bitartez gastuok 2020ko Aurrekontuan jasotzeko proposamena egin da.

Eztabaida ireki da baina udalkideek ez dute iritzirik edo oharrik izan. Ondorioz, bozketa egin da eta bertaratutako guztiek aldeko botoa eman dute. Hortaz, ahobatez onartu da 2. kreditu aldaketa behin-behinean.

BOSTGARREN PUNTUA:

HAPOAREN 2. ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak udalkideen esku jarri du HAPOaren 2. Aldaketa puntualaren espedientea. Bertan azaltzen da 15. Sektorean – “Beheko Soroan” egin nahi den arau aldaketa proposamena, bai eta jaso diren aldeko txosten sektorialak, Udal arkitekto aholkulari ordezkoren aldeko txostena eta herritarren partehartze programaren emaitza ere, besteak beste.

Gogora ekarri du gai hori Hirigintza Batzordean ere aztertu zela eta eztabaida ireki da. Asier Etxarri zinegotzi jaunak galdetu du ea non eta zertan antzemango litzatekeen zehazki aldaketa eta alkate jaunak erantzun dio.

Ez da beste galderarik edo ekarpenik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez eman zaio hasierako onespena proposatutako aldaketari.

SEIGARREN PUNTUA:

IGERILEKUA GAITZEKO ETA EGOKITZEKO EGITASMOA ONARTZEA ETA HORRETARAKO DIRU ZUZKIDURA NAHIKOA EZARTZEA KREDITU ALDAKETAREN BITARTEZ.

Idazkariak gogora ekarri du badela 2020ko Aurrekontuan igerilekua gaitzeko eta egokitzekeo partida bat baina, horretarako egitasmoa zehaztu ahala, ikusi dela ez dela nahikoa izango eta kreditu aldaketa egin beharko dela, igerilekua behar bezala konpondu nahi bada.

...//...

O-20/04-03



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
O-20.04.08

...//...

Alkate jaunak egitasmoaren nondik norakoak eman ditu eta adierazi, batez ere, segurua izan behar duela igerilekuak, maila guztietan.

Lehendik Hirigintza Batzordean landutako gaia izanik, udalkideek ez dute galderarik izan eta, bozketa egin ondoren, guztiak alde agertu direnez, ahobatez onartu da igerilekua gaitzeko eta egokitzeko egitasmoa eta horretarako egin beharko den kreditu aldaketa.

ZAZPIGARREN PUNTUA: **ERREGUAK ETA GALDERAK.**

Ez da erregurik ez galderarik izan.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 14:45 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.



Ormaiztegin, 2020ko martxoaren 16an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...
O-20/04-04